

Galdakako Euskararen komunitatea josteko topaketan ateratako ondorio batzuk

Euskaltzaleen Topaguneak, Bagabiz Euskara Elkarteak eta Galdakako Udalak topaketa bat antolatu zuten herriko euskararen komunitatea saretzen hasteko eta euskararen aldeko sustapenean jardungo duen egitura sortzeko. Euskararen egoera hobetu nahi duten herritarrek zein elkarteek hartu zuten parte.

Aste batzuk arinago **inkesta** bat zabladu zen hainbat eragileren artean eta hauexek dira batu ziren datuak:


- **166 erantzun**
- **21ek talde bateko ordezkari** gisa erantzun dute
 - Adibidez: 5 guraso elkarteetakoak, 3 gazte mugimendukoak, komunikabideak, kirol taldeak...
- Erantzun duten pertsonen **adin media: 43 urte**
- Zelakoa da **euskararen egoera** Galdakaon? **3,7**
- **Zenbat kezkatzen zaituzte/zaitu** Galdakaon euskararen bizi duen egoerak? **8,8**
- **Zenbateko lehentasuna** dauka euskararen **gaia lantzeak?** **9**
- **Zenbateko garrantzia** dauka euskararen sustapenean jardungo duen **komunitatea saretzeak?** **8,9**

Galdakao euskalduntzeko bidean, zein arlo landu beharko litzateke lehentasunez?

Kopiatu

(aukeratu 2)

166 erantzun



Euskararen komunitatea josten hasteko topaketa horren helburu nagusiak izan ziren: elkarren berri izatea, etorkizuneko lehentasunak zehaztea, estrategiak irudikatzea eta iritziak jasotzea.

50 bat lagunek lan-taldeetan aritu ziren beraien iritziak, hausnarketak...partekatzen. Bestalde, AEK-k ere ikasleekin horri buruzko berbodromoa egin zuen euskaltegian bertan. Udal Euskaltegiari ere proposatu zitzaion, baina ez zuten egin.

Hausnarketarako lan-taldeak:

- Euskararen erabilera eta sentsibilizazioa,
- Haurrak eta familia transmisioa
- Kultura eta aisialdia

EUSKARAREN ERABILERA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Xede-taldeak

- Guraso-taldeak
- Haurrak eta gazteak
- Aisialdia: kirola, eskolaorduz kanpokoak, musika eta teknologia
- Tabernariak eta merkatariak
- Etorri berriak
- Euskara ikasleak

Ekintzak

- Etorri berrientzat harrera linguistikoa
- Formazioa (euskaltegiak, guraso eskola, irakasleak, begiraleak, hezitzaileak...)
- Kaleko ekintza gehiago eta zabalkundea eman
- Kanpo dinamizatzailerak sortu
- Harreman zuzenak udalarekin
- Merkatariekin eta ostalariekin kanpainak (gidak, identifikagarriak...)
- Identifikagarriak
- Euskararen azoka
- Bagabiz indartu
- Arnasguneak ezarri (euskaraz aritzeko guneak)

- Eragileak

- Auzo-elkarteak
- Ikastetxeak
- Euskaltegiak
- Guraso elkarteak
- Kirol elkarteak
- Kultura elkarteak

- Udala
- Pertsona erreferenteak
- Dendari elkarteak
- Gazte kuadrilen elkarteak
- Jai batzordeak

HAURRAK ETA FAMILIA TRANSMISIOA

Orokorrak

- Militantzia helduena da, umeei ezin zaie eskatu.
- Nola egin gurasoak ohar daitezen eskolak bakarrik ez dituela umeak euskaldunduko?
- Telebista eta marrazki bizidunak, euskarazko eskaintza txikia arazo.

Zailtasunak

- Begiraleak eta entrenatzaileak: Udalekuetako begiraleen eta zenbait kultur/kirol taldetako entrenatzaileek hizkuntza portaerak kezka. Begiraleen artean gazteleraz aritzen dira. Umeen atxikipen emozioanala lantzeko garrantzitsua da begirale eta entrenatzaileekin lanketa gehiago egitea.
 - Futbol taldean entrenatzaileak gazteleraz aritzen omen dira. Ondorioz, ordura arte elkarrekin euskaraz aritzen ziren umeak gaztelerara pasatzen omen dira.
- Gurasoen arteko harremanak. Guraso euskaltzaleek zailtasunak dituzte euskarari eusteko parekoek gazteleraz egiten dietenean, nahiz eta euskara ulertu.
- Etxeko hizkuntza erabilera.
- Eskola patioa. Umeen arteko erabilera.
- Gurasoen arteko sentsibilizazioa. Kontziente izan beharra zein aisialdi eskaintzataraz eramaten dituzten umeak, zein hizkuntza den nagusi talde horietan.
- Estres linguistikoa merkataritzan zein ostalaritzan.
- Zein momentutan pasatzen dira umeak euskaraz aritzetik gazteleraz aritzera? Horren arrazoiak identifikatu beharra. Umeek 5-6 urte arte euskaraz egiten dute gehiago, baina gaztelerara pasatzen dira orduan. Eta gazteleraz hobeto moldatzen direnez, normala da gazteleraz egitea.

Aukerak

- Galdakako euskararen arnaguneak zein dira? Andra Mari dantza taldea.
- Norberak egin dezakeena. Lehen berba euskaraz egitea edonon.
- Elkarrizketa elebidunak. Bi ikuspegi daude gai honekiko: estresa sortzen duela eta aukera dela diotenak.
- Talde txikian errazagoa da eragitea → entrenamenduak.

- Entrenatzaileen sentsibilizazioa eta formazioa. Begiraleei konpromiso handiagoa eskatzea.
- Hizkuntza akademikotik aisialdian euskara errotzera.
- Kontzientzia hartzea, lehen pausoa.
- Espazio fisiko bat sortu non gurasoek euren artean euskaraz egingo duten.
- Ekintza ikusgarriak izan daitezela.
- Gurasoen kuadrillan elkarren arteko elkarrizketak izan hizkuntzari eta euren portaerei buruz. Baina gurasoei elkarrizketa hau nola erraztu pentsatu beharra dago: Eskuorria
- Ume taldean gurasoak euskaraz sartzeak laguntzen du aldaketa egiten. Esku hartze disimulatuak egin, positibotik (errieta ez).
- Eskolak ere asko egin dezake: pedagogia linguistikoa gurasoen artean.

KULTURA ETA AISIALDIA

Herrian dagoena

- Andra Mari dantza taldea erreferentea
- Sormene
- Berbalagun programa
- Lehen baino gehiago programatzen da euskaraz, baina gehiago behar da

Falta dena

- Musika euskaraz entzuteko zirkuito bat (ostalariekin adostu)
- Musika eskola kalera atera
- Mendi ibilibideak euskaraz
- Auzoetako jaietan euskararen presentzia handitu
- Hizkuntza paisaia zaindu eta indartu
- Hitzaldiak euskaraz eskaini (oso gutxi egiten dira euskaraz)
- Zinema eat antzezlanak euskaraz ziurtatu
- Sormeneri buleta bat eman (kalera atera)
- Auzoetara euskal kultura eraman
- Adinekoen aisaldia euskaraz dela ziurtatu (egoitzetan hilean behin gutxienez ekintza bat euskaraz)
- Beste herri batzuetako praktika onak aztertu eta herrira ekarri
- Etorkinak euskara hurbildu: harrera protokoloak (etokinen eguna??)
- Lehengo programa batzuk berreskuratu (zuztar luze...)
- Erreferenteak detektatu eta erakarri
- Etxea eskola bihurtu (aitite- amamak baliatu)

AEK-ko BERBODROMOA

Galdakako euskaren erabileraren datu orokorra (%14):

Ikasle gehienak onera harritu ditu datu honek, gutxiago espero zuten eta; beste batzuek erdarak indar handia duela esaten dute. Ikasleek gaztelania nagusitzen dela ikusten dute, behintzat, euren inguruan.

Galdakaon euskararen erabilera 0-10 bitartean neurtu beharko balitz, ikasleen pertzepzioa honako hau da:

Maila handiagokoek, batez beste, 4

Maila baxuagokoek, batez beste, 5

Zenbat eta euskaldunagoa izan pertzepzioa baxuagoa da.

Iritziak eta proposamenak

- Euskara gehiago noiz: **guraso umeen arteko** memento hori dela ikusi dute hainbatek.
- Euskararen erabilera hobetzea, denon ardura dela diote ikasleek. Baina talderen baten eragin beharko balitz, **helduen esparrua** da.
- Beste adin gako garrantzitsu bat ere badago: **10-11 urte**. Hor hasten dira ume euskaldunak direnak erdaraz egiten. Hor hasten da nerabezeroaren lehen astindua. Beraz, garrantzitsua txikitatik eragitea euren gurasoekin, ahal dela.
- **Praktikarako guneak** indartu beharko lirатеke: euskaltegiak badaude, berbalagun ere bai, baina gehiago indartu beharko lirатеke biak.
- **Kontzientziario kanpainak** garrantzitsuak dira. Ikasleen ustez jendeak ez du euskaraz hitz egiten segurtasun faltagatik; txarto egitearen lotsa ere tarteko dago (euskaraz jakin behar duzula uste izaten da; ondorioz, hanka sartzearen lotsa eta beldurra ere badago). Kontzientziario kanpainak atal hau ere landu beharko lukete. Giroa sortzea garrantzitsua da.
- Umeen **entrenamenduetan** euskara bultzatu.
- **Euskal dantzak** dira euskara mantentzen dutenak, bai Usansolon, bai Galdakaon.
- Eskoletan **irakasleek** gero eta erdara gehiago erabiltzen dute. Umeei erdaraz egiten uzten diete. Umeei lanen bat egin behar da (ume nagusiek ume txikiak jolasak prestatzea euskaraz)
- **Eskolako** patioan euskaraz egitea **saritzea** izan daiteke modu bat (opariak, hobariak...)
- **Eskola** batzuetan (Aperribaiko eskola eta Urretakoan, umeei **bazkaltzen** ematen dieten askok erdaraz egiten dute euren artean eta umeei).
- Gurasoei begirako **sentsibilizazio kanpainak**.
- **Aisialdian** euskaraz egitera bultzatu.
- Ekintzak antolatu **ez dakiten** gurasoentzat, helduentzat.
- **Erreferente** euskaldunak
- Umeei, gazteek eta nagusiek **Interneten** kontsumitzen duten ia guztia erdaraz.

- Lehenago umeeekin euskaraz entzuten zen gehien bat, orain txakurrekin askoz gehiago egiten da.
- Euskaltegietan eta ikastetxean irakasten den euskara ondo dago, baina alde handia dago batzuetan **euskara artifizial-robotiko** horretatik kaleko euskaldun zaharren euskarara.
- Garrantzitsua litzateke **gurasoak erreferente** bihurtzea.
- Ekintza gehiago **guraso-umeeekin** (guraso barnetegien antzekoak urte osoz)
- **Diskofesta** euskaraz umeentzako.
- **Guraso barnetegiak** bultzatu behe mailatik ere bai (diruz bereziki lagunduak)
- **Lanbide heziketan** erdarak indar handia du (euskaraz ez dakiten hainbat atzerritar dago, baita A ereduan ikasitakoak edo euskara erabiltzen ez duten hainbat eta hainbat). Kanpaina berezia giro honetan ere bultzatzeko.
- **Ostalaritzan** kanpaniak egin euskara erabiltzeko.
- Familiakoek, gurasoak umeeekin **ipuinak** kontatzera animatu (bultzatu, motibatu), gauza bera **telebista** euskaraz elkarrekin ikustearekin eta jolasak euskaraz elkarrekin egitea ere bai.
- **Euskarazko musikarekin** asko ikasten da eta oso motibagarria izan daiteke
- **Udalak** euskara bultzatzeko konpromiso handiago hartu beharko luke.
- **Sare sozialak** euskaraz erabiltzera bultzatu.
- Herriko **euskal sortzaileak** (famatu izan barik ere bai) premiatzea oso ona litzateke.

Ikasleek zer behar dute?

- Segurtasuna sentitu
- Euskal girora hurbiltzera laguntzea
- Baserri barnetegiak
- Familia euskaldunekin elkarbizitza aldi-baterako.
- Hau guztia diruz ondo lagunduta.